

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

170/2024 Foru Agindua, apirilaren 17koa. Delia Legarda Ozaeta, aldi baterako izendatua, Lagrango Udaleko idazkari kontuhartzaile lanpostutik kentzea, berak hala eskatuta

2024ko apirilaren 11ko idazki baten bidez, zeina Lagrango Udaleko alkateak helarazi baitzuen egun berean, Delia Legarda Ozaetak borondatez uko egin zion bere lanpostuari, 2024ko apirilaren 15etik aurrerako ondorioekin.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 56. artikulua ezartzen duenez, xedapen horren VI. kapituluaren aipatzen diren izendapenak egiteko eskumena duten organoek izendapena errebokatzeko eskumena ere badaukate. Artikulu bereko 2. apartatuak ezartzen du izendapen edo errebokatzeko horiek egiten dituen organoak dagokion idatzoharra egingo duela aipatutako errege dekretuaren 23. artikuluan adierazten den erregistro integratuan.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak hamahirugarren xedapen iragankorrean agindutakoa betez, Estaturako gaikuntza duten toki administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren xedapen gehigarrietatik hirugarrenarekin lotuta, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoaren martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotako esku-menak betez, eta horien indarrez, dagozkidan ahalmenak baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Delia Legarda Ozaeta Lagrango Udaleko idazkari kontuhartzaile lanpostutik kentzea, 2024ko apirilaren 15eko ondorioekin, zeina aldi baterako izendapenaren bidez betetzen baitzuen martxoaren 22ko 123/2024 Foru Aginduaren arabera.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Lagrango Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, dagozkion ondorioetarako, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Jakinarazten zaizun foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakezu zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 17a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua
ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria
LAURA PÉREZ BORINAGA